

Doniene



# Gaztelugatxeko San Juan

*San Juan de Gaztelugatx*



Gaztelugatxeko San Juan edo Doniene Euskal Herriko itsas santutegirik garrantzitsuena da. Mendeetan zehar Bizkaiko biztanleen peregrinazio tokia izan da, gehien bat inguruko herriko arrantzaleena.

Idazle erromantikoek, XIX. mendean, soberania nazionalaren sinbolotzat hartu zuten, irlaren tontorretik egin zen borrokagaitik Bizkaiko independentziaren alde.

Basatia eta edertasunez betea dugu Matxitxakoko lurmuturreko mendebaldea, gure kostako nabarmenena, Akatz eta Gaztelugatxeko irlak bereiztuz bereziki. Azken hau, begi biko harrizko zubi baten bidez dago lurrera loturik. Penintsula gainean San Juan bateatzaileari, bere martirioan edo lepo mozketan, eskeinitako ermita bat dago. Ermitara heltzeko 231 harri maila igo behar dira, tradizioak dioenez antzina 365 izan ziren: “urtiek egunek dekosen beste eskillarak egon ziren”.

*San Juan de Gaztelugatx es el santuario marítimo más importante de Euskal Herria. Ha sido, a lo largo de los siglos, uno de los lugares de peregrinación más importante, especialmente de los marineros de la costa de Bizkaia.*

*En el siglo XIX, los escritores románticos, rememorando la heroica defensa que se hizo de la independencia de Bizkaia desde lo alto del peñón, lo reivindicaron como un símbolo de la soberanía nacional.*

*El oeste del cabo Matxitxako, el más sobresaliente de nuestra costa, es agreste y bellissimo, destacando las islas de Akatz y Gaztelugatx. Ésta se halla unida a tierra por un puente de piedra de dos ojos que la convierte en una península sobre la que se asienta la ermita dedicada al martirio o degollación de San Juan Bautista. Para llegar a la misma hay que ascender 231 escalones, aunque la tradición sostiene que antiguamente había tantos peldaños como días tiene el año, o sea 365.*



## San Juan Lepamoztuari kultura


Eleiza katolikoak San Juanen jaiotza ekainaren 24ean ospatzen du eta bere martirioa abuztuaren 29an. Juan Bateatzailea Herodesen aginduz dekapitatu zuten, eta bere burua, bandeja batetan jarri ondoren, Herodiadesen alabari eman zioten. Kontakizun santu batek dioenez, Herodesek Bateatzailearen berpiztuerari bildur zion, burua eta gorpua batera lurperatuak baldin baziren, horregatik lurperatu zuen gorpua Makeronte-ko gotorlekuan eta burua Jerusalem-eko errege jauregiaren harresien azpian.

Erdi Aroko kronika miraritsuen arabera, burua, gorabehera askoren ondoren Akitaniaraino heldu zen. Bateatzailearen buruaren aurkezpena 1010. urtean egin zen Saint Jean d'Angély-n herrian, La Rochelle-tik kilometro batzuetara. Urte horretatik aurrera Bateatzailearen buruari kultura zabaltzen joan zen. Nafarroako erreinuan Santxo Handia erregeak, 1025. urtean, San Juan de la Peña monastegia sortu zuen Pirinioetan, Jaka inguruko ermitainu gune zahar baten gainean.

## El culto a San Juan Degollado

*La iglesia católica celebra el nacimiento de San Juan el 24 de junio, coincidiendo con el solsticio de verano, y su martirio el 29 de agosto. Juan el Bautista fue decapitado por orden de Herodes y su cabeza, colocada en una bandeja, entregada a la hija de Herodíades. Según una leyenda piadosa, Herodes temiendo la resurrección del Bautista si se enterraban juntas su cabeza y su cuerpo, mandó sepultar el cuerpo en la fortaleza de Maqueronte y la cabeza en Jerusalem, bajo los muros del palacio real.*

*Las milagreras crónicas medievales, suponen que la cabeza, después de múltiples vicisitudes, llegó hasta Aquitania. La presentación de la cabeza del Bautista tuvo lugar el año 1010 en la localidad de Saint Jean d'Angély, a pocos kilómetros de La Rochelle. A partir de ese año el culto a la cabeza del Bautista se difunde. En Navarra el rey Sancho el Mayor creó en 1025 el monasterio de San Juan de la Peña sobre un primitivo núcleo de ermitaños.*





## Fundazioa

Hogeitazortzi urte beranduago, 1053. urtean, Bizkaiko jaunak Pirinotako monastegi famatuari tenplu hau eskeini zion. Tenplua jatorrizko dokumentuan *Sancti Iohannis de Castiello* izendapenarekin agertzen da, “*in territorio de Bakio eta alia parte de Bermeio*” kokatuta. Ondorengo dokumentuetan, premonstratense ordenari eskeintzen zaionean, *Sanctus Iohannes de Penna* deitzen zaio. Mendeetan zehar *San Juan de la Peña*, izenarekin jarraitu du edo antzekoekin: *Archivo Segreto Vaticano*-an, *Sancti Iohannis Baptiste de la Pennya* izenarekin aurkitu dugu XV. mendean. *San Juan de Gaztelugach* eta *San Juan de Gaztelugache* izenak dokumentuetan ez dira agertzen XVIII. mende arte. *Doniene* beste izendapen herrikoia da, ziurrenez *Done Iohannes* (“San Juan”) arkaiko baten kontrakzioa izango da.

Tenpluaren imajina agurgarriena San Juanen burua da, bandeja baten gainean jarrita. Irudi hau beti egon da ohorezko lekuan, erretaula nagusiaren erdian, eta orain absidearen jarritako itsasontzi baten brankaganean.



San Juan de la Peña (Huesca)

6

7

## La fundación

*Veintiocho años después, en 1053, los señores de Bizkaia donan este templo al famoso monasterio pirenaico. En el documento original, aparece con el nombre de Sancti Iohannis de Castiello localizado “in territorio de Bakio et alia parte de Bermeio”. En documentos posteriores, cuando se dona a la orden premonstratense, es denominado Sanctus Iohannes de Penna. A través de los siglos ha perdurado con este nombre de San Juan de la Peña o similares como Sancti Ioannis Baptiste de la Pennya que he encontrado en documentación del siglo XV del Archivo Segreto Vaticano. Los nombres de San Juan de Gaztelugach y San Juan de Gaztelugache no aparecen en la documentación hasta el siglo XVIII. Otra denominación popular del santuario es Doniene que posiblemente es contracción de un arcaico Done Iohannes que significa “San Juan”.*

*La imagen más venerada del templo es la cabeza de San Juan depositada sobre una bandeja. Esta imagen siempre ha estado en un lugar de honor, presidiendo el retablo mayor y ahora ha quedado ubicada a modo de mascarón de proa de una embarcación pesquera que se ha situado en el ábside, sobre el altar.*





## Historia

“Monastegi” edo Erdi Aroko eleiza izatetik komentu premonstratense bat izatera pasatu zen XII. mendean. Fraileek 1330. urtean komentua utzi eta dokumentazio guztia, santutegiaren erlikiak eta bitxiak Salamancara eraman zituzten eta galdu egin ziren.

Inioz ez da izan tenplarioren eleiza edo gomendioa. Baina, nire ustez, Tenplearen Ordenarekin zerikusi euki ahal du, bere kideen sarraskien ostean (1307-1314) tenplarioen altxorra eta La Rochelle-ko flota desagertu eta gero.

1334.ean Alfonso XI.a errege gaztelarrak Bizkaiko Jaureria Juan Nuñez de Lara jaunari kentzen saiatu zen. Jaunak Gaztelugatxeko haitzan egin zuen defentsa indarra, bertan inguratuta egonik ekaina eta uztailean zehar. Azkenik, errege gaztelarrak, aurkakoak garaitu ezin zituela konturatuz, armistizio bat sinatu eta bere tropak erretiratu zituen.

1596.ean, Bermeo eta Izaro atakatu zuen flotatxo franko-ingeleseko soldadu batzuk San Juanera igo ziren. Hauek bitxiak lapurtu, bateatzailearen imajina bota eta ermitainua haitzetatik behera jaurtiki zuten, itsasoraino zatika eroriz. Ondorengo atake piratak ere, 1782.ekoa adibidez, botin urria eskuratu zuten.

XIX. mendean egoera tamalgarria zen, 1808an botatzen saiatu zirelarik. Dena den, azkenik ez zuten 1886. urteraino behera bota, antzinako eraikina apurtuz eta gaur egungo eleiza eraikiz, balore artistiko eta historiko gutxikoa.

## Historia

*De “monasterio” o iglesia medieval pasó a convento premonstratense en el siglo XII. Los frailes lo abandonaron hacia 1330 llevándose a Salamanca toda la documentación, reliquias y joyas del santuario de los que no se conserva nada.*

*No ha sido nunca un templo ni encomienda templaria, aunque creo que pudo haber tenido una relación indirecta con la Orden del Temple tras el feroz exterminio de sus miembros (1307-1314) y la desaparición del tesoro y de la flota templaria con base en La Rochelle.*

*El año 1334, el rey castellano Alfonso XI intentó usurpar el Señorío de Bizkaia a D. Juan Nuñez de Lara que se sublevó haciéndose fuerte en el peñón de Gaztelugatx. El rey castellano lo cercó entre los meses de junio y julio. No pudiendo derrotar a los rebeldes, firmó un armisticio con los mismos y retiró finalmente sus tropas.*

*En 1596, algunos soldados de la flotilla franco-inglesa que atacó Bermeo e Izaro subieron a San Juan, robaron las alhajas, derribaron la imagen del Bautista y despeñaron al ermitaño haciéndose pedazos contra las rocas. Otros ataques piratas posteriores, como el de 1782, obtuvieron también un escaso botín.*

*El siglo XIX, su estado era tan lamentable que se intentó su demolición en 1808, aunque no se llevó a cabo hasta el año 1886, destruyendo la antigua edificación y construyendo la actual iglesia de escaso valor artístico e histórico.*



1917



## Erromeriak

Udaro, milaka pertsona hurbiltzen dira San Juanera eskualde guztietako herrietatik, giro lasaitu eta alai batean behar diren errituak betetzeko. Ermitara heldu eta gero, ohitura da kanpaia jotzea. Ondorioz, kanpai sokaren azpian egun guztian zehar etengabe jotzen diharduten peregrino multzo izugarriak bilduz. Erromesak meza entzun eta gero, herrira itzuli baino lehen, Do-niene eskapularioak eta betiko erroskilak erosten dituzte.

Ekainak 24an egiten den erromeri famatuenera joaten diren gehienak bermeotarrak izaten dira, barrukaldeko herrietatik ere hainbat etorri arren. Goiz goizetik hasi eta milaka pertsona pasatzen dira ordurik ordura ematen diren mezetatik, lehena goizaldeko sei t'erdietan dutela. Ohitura izan da Olbizarretan (Urizarretan) eguerdikoa jan eta Bakiora jeistea. Arratsalde erdian Bermeora itzultzen da, Arenen geldiupe bat eginez. Amaiera Bermeoko herrian ospatzen da jaigiroan, berandu arte.

Uztailaren 31an ere beste erromeria bat egoten da. Oraingo honetan Arrietatik ateratzen da goizaldean Ama Birjinaren irudi bat prozesioan eramanez. Oinez Sollubeko bizkarretik ibili ondoren, Mañuko Karmengo Birginaren eleizan eta San Pelaioko eleizan geldialdia egiten dute, eta hemendik San Juanera jeitsi.

Abuztuaren 29an bakiotarrek Eneperiko jaia ospatzen dute, talde handitan joanez santutegira. Egun honetan ere Bermeoko Udaletxeak tenpluari bisita egin eta azken urtean jasotako berrien Akta egiten du, irlaren jabetza baieztatuz.



2007.08.29

## Romerías

*Todos los veranos, desde los pueblos de la comarca, se realizan peregrinaciones colectivas hasta la ermita, acudiendo miles de personas que, en un ambiente distendido y festivo, cumplen con los rituales establecidos. Nada más llegar a la ermita es costumbre tocar la campana, formándose bajo la espadaña colas de peregrinos que la hacen sonar durante toda la jornada festiva. Los romeros oyen misa y muchos, antes de marcharse, adquieren escapularios de San Juan así como las clásicas rosquillas*

*A la romería más multitudinaria, la del 24 de junio, acuden fundamentalmente desde Bermeo aunque también llegan romeros de otros pueblos del interior. Desde el amanecer, miles de personas desfilan por el peñón donde se oficián misas cada hora a partir de las seis y media de la mañana. Ha sido tradición comer en Urizarreta (llamada también Olbizarrak), bajar a Bakio y, a media tarde, volver a Bermeo, haciendo escala en Arene y continuando la fiesta en el pueblo hasta bien entrada la noche.*

*El día 31 de julio una nueva romería se dirige hasta Gaztelugatx. En esta ocasión sale de madrugada desde Arrieta, portando, en procesión, una imagen de la Virgen y recorriendo a pie el espinazo del monte Sollube, con parada en la iglesia de la Virgen del Carmen de Mañu y en la iglesia de San Pelayo, de donde bajan hasta San Juan.*

*El 29 de agosto la fiesta de Eneperi la protagonizan los habitantes de Bakio que acuden en masa hasta el santuario. Es la fecha señalada también por el Ayuntamiento de Bermeo para la visita anual al templo y para proceder a levantar Akta de las novedades del último año, reiterando así la soberanía del peñón.*

2005.06.24



## Kanpai hotsak

Antzina kanpaiak beheko partean egon ziren, harrizko arku batetik dindilizka. XIX. mendean egin ziren obreekin, kanpaia orain dagoen lekuan jarri zen, ate nagusiaren gainean. Tradizioak eskatzen du kanpaia jotzea santutegira heltzen danean. Gizon-emakume zahar batzuk dinoie *Pater Nosterra* erreza-tzen dan artean jo behar dela kanpaia. Beste batzuk hamahiru bider jotzen dute, baina, gehienak, hiru biderrez bakarrik jotzen dute.

Meza ematen denean kanpaia ez da jo behar.

## Toque de campanas

*Antiguamente las campanas se situaban al ras del suelo, colgada de un arco de piedra. Con las obras que se hicieron a finales del siglo XIX se situó sobre la espadaña de la fachada del templo. La tradición manda que se toque la campana nada mas llegar al santuario. Algunos informantes me dicen que se rezaba un Pater Noster mientras se tocaba la campana y que hasta finalizar el rezo no se dejaba de tañir. Otros tocan trece veces la campana y la mayoría, sobre todo cuando hay mucha gente, la hacen sonar sólo tres veces.*

*No se debe tocar la campana cuando se está oficiando una misa.*



## San Juan Portale eta San Juanen oñotzak

Doniene eta Bermeoko herria lotzen duen zilbor heztea, antzinako kaltzada, harresi zaharraren portalean hasten da, *San Juan Portale*-an. Horren azpian, oraindik, oin itxurako zulo bat duen harri bat daukagu, San Juanek berak utzi zuen oinotza egindakoa herriko jendearen ustez. Santuak, Bermeoko portuan lurreratu ondoren, hiru pausu emanez iritsi omen zen Gaztelugaxtera, lau oin aztarna utziz: “*San Juanek leelau leelau imin zauen kaderie Morondon, arkupien. Gero imin zauen kaderie Arenen, itxurri zelan dauen Salomeneko beko partien, an leelengo kaderie. Bigarrena Martin Koixoneko mendijjen, an Landatxuen, Landako beko partien, da irugarrena San Juanen. Zelako oñek okin sauen San Juanek!*”.

1980garren hamarkadan, Burgoko kaltzada galdu ondoren, oin aztarna bat jarri genuen egungo bidearen ondoan, gutxi gora behera Matxitxako lurmuturra pasata, santutegia lehenengoz ikusten den tokian. San Juan Portalekoa berria jarri zan eta Burgokoa, santutegian bertan ipini zan eta holan, San Juanen hiru pauso eta lau oinotzak mantendu egin dira.



### *El Portal y las huellas de San Juan*

*El cordón umbilical que une el santuario con Bermeo, la antigua calzada, se inicia en el antiguo portal de las murallas, denominado popularmente San Juan Portale. Bajo el Portal de San Juan se encuentra todavía una piedra que presenta excavada una cavidad en forma de pie y que representa, según las leyendas locales, la huella dejada por San Juan, San Juanen oñotza. El santo, tras desembarcar en el puerto de Bermeo, llegó hasta la cumbre del peñón dando tres grandes pasos o trancos: el primero desde el mencionado portal de las murallas hasta el barrio de Arene, el segundo hasta cerca del monte Burgó y el tercero hasta el peñón de Gaztelugatx.*

*En la década de 1980, perdido el trazado de la calzada del Burgo, procedimos a colocar una huella junto a la carretera actual, poco después de doblar el cabo Matxitxako, exactamente en el lugar en el que se divisa por primera vez el santuario. La losa del primer paso se renovó y la losa de Burgoa, que tiene grabado el nombre de San Juan, se colocó en el propio santuario como remate de la escalinata de acceso. De esta manera se ha mantenido la sucesión de los tres pasos y cuatro huellas del santo.*







## Arrantzaren aldeko erritualak

Uda hasieran edo udazkenean, atunaren kosteraren hasiera eta amaierarekin batera, itsasontzietako neskatilak eta arrantzaleen senideen taldeak San Juanera joaten dira arrantza on baten eskatzeko.

Bermeoko itsasontzi berrien bedeinkazio edo “*bautisue*” ere Gaztelugatx aurrean egiten da. Fraile edo abadeak untzia bedeinkatzeko bazter guztiak zeharkatzen ditu, ur bedeinkatua isuriz eta beragaz gurutzeak eginez toki guztietan. Ospakizun erlijiosoak bukatzean, itsasontziak hiru zirkulo ematen ditu itsasoan eta ondoren, gaur egun nahiko isilean, errito magikoa hau egiten da: sartagin baten gainean San Juan besperan batutako “*San Juan kargillie*” ipintzen da, sua ematen zaio, eta sartagina, belar sorta eta guzti, kareletik itsasora botatzen da. Batzuk, jarraian, txanpoiak itsasora bota egiten dituzte itsasontziak sorte ona euki dezan.

## Rituales propiciatorios para la pesca

*A principios del verano o en otoño, coincidiendo con el comienzo y el final de la costera del bonito, es frecuente que grupos de mujeres o familiares de los pescadores acudan a San Juan para solicitar una buena pesca.*

*La bendición o “bautizo” de las nuevas embarcaciones de Bermeo también se desarrolla frente al peñón. El fraile o sacerdote que oficia bendice la embarcación, recorriendo sus dependencias, asperjándolas con agua bendita y haciendo cruces en las mismas. Terminada la ceremonia religiosa, la embarcación hace tres círculos en la mar y se procede, hoy en día con discreción, a la siguiente ceremonia de carácter mágico: se coloca sobre una sartén el “ramillete de San Juan” (San Juan kargillie) que se ha recogido la noche de San Juan, se le prende fuego y ardiendo se arrojan, sartén y ramillete de plantas, por la borda al mar. A continuación, algunos de los presentes arrojan algunas monedas al mar para propiciar una buena pesca al barco.*



## Herritar medikuntza

Santutegira arima garbitzeko joateaz aparte, gorputzaren gaitzak sendatzeko ere joaten zen jendea. Seme alaba bako emakumeak santutegiko Santa Ana-rengana joaten ziren umeen erropa edo gauza bategaz. Bere bitartez lortu-tako umeak “benturara” bataiatzen ziren bertan. Amets geixotasunak sufritzen zituzten umeek (sonanbulismoa, amets gaiztoak, gau beldurrak) hiru barikutan jarraian eramaten zituzten San Juanera, errosario bat errezatu eta limosna bat eskeiniz.

Buruko min ugariak dituztenak, kanpaia hiru sortan jotzen zuten, azpian kokaturik, eskurago zegoenean. Buruko mina ez eukiteko, gaur egun arte heldu den ohitura, kanpai jotzea izen da, kredo bat errezatzen den artean. Tartar egiten zutenek San Juani, ukubilan gorde zezaketen mone-dak eskeintzen zioten. Kailuak zituztenek, berri-z, euren oinak ermitarako bidean zehar dauden San Juanen “oinen” aztarnetan sartzen zituzten.

Era guztietako promesak eta eskakizunak ere egiten dira, pertsonalak, familiarrak, ikasketenak, itsasontzietarako, enpresentzako, negozioak, gi-zartearen aldekoak, eta abar. Aipamen berezia me-rezi dute “arimier” buruzko sineskerak, hemen as-ku ahal dira eta hemetik zerura igotzen direlako.



## Prácticas de medicina popular

*Se ha acudido al santuario para purificar las almas y también para sanar los cuerpos. Las mujeres que no podían tener hijos llevaban una ropita u objeto de niño o niña a la imagen de Santa Ana que allí se veneraba, bautizándoles luego “a la ventura”. Los niños que padecían trastornos del sueño (sonambulismo, pesadillas, terror nocturno) eran llevados tres viernes consecutivos a San Juan donde rezaban un rosario y depositaban una limosna.*

*Los que padecen frecuentes dolores de cabeza, hacían sonar la campana en tres series colocándose bajo la misma, cuando ésta estaba más accesible. Una costumbre que ha llegado hasta nuestros días, para preservarse del dolor de cabeza consiste en tocar la campana sin parar mientras se reza un credo. Los tartamudos ofrecían a San Juan las monedas que podían encerrar en su puño. Los que sufren de callos introducían los pies en las “huellas” del Santo que jalonan el camino de la ermita.*

*Se hacen promesas de acudir al santuario si se obtiene lo solicitado y peticiones de todo tipo, personales, familiares, de estudios, de auxilio, de embarcaciones, empresas, negocios, sociales, etc... También ha estado relacionado con las “almas en pena”, arimiek, que desde aquí pueden liberarse y ascender al cielo.*



## Gaztelugatxeko Babespeko Biotopoa

Kostaldearen eremu honek paisaia-multzo bikaina osotzen du. Azpimarratzeko dira itsasoaren hondoak, alga handiarekin (*Laminaria* spp.), *Gelidium sesquipedale*, labarretako landareri bereziak (*Armeria euskariensis* eta *Olea europaea* var. *sylvestris*), lanpernak, arrain mota asko eta itsasoko hegaztiak (kormorana, hanka horidun kaioa, ohiko painoa eta abar). Gaztelugatx aldeko itsasoak, lurrak, landareria eta fauna konserbatzeko, Babestutako Biotopo deklaratu zen (EHAA, 229/1998 Dekretoa). Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Biotopoen kudeaketa eramatea.

## Biotopo Protegido de Gaztelugatx

*Este tramo de costa forma un conjunto paisajístico sobresaliente. Destacan los fondos marinos, con algas de gran porte (*Laminaria* spp.), *Gelidium sesquipedale*, interesante vegetación de acantilado (*Armeria euskariensis* y *Olea europaea* var. *sylvestris*), percebes, muchas especies de peces y aves marinas (cormorán, gaviota patiamarilla, paiño común, etc). Para conservar y proteger el paisaje, la flora y la fauna del área de Gaztelugatx se declaró Biotopo Protegido (BOPV, Decreto 229/1998). La gestión del Biotopo corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia.*

## Santutegiaren ondamena 1978.ean

Gaztelugatxeko eleizak izan duen azken gertakizun penagarriena 1978.eko urriaren 10ean eginiko erretea izan da. Sakrilegioaren egileek santuaren burua haitzetatik behera bota zuten, egun batzuk geroago bertan aurkituaz. Jarraian talde handi batek, gehienak bermeotarrak, "Doniene Berreraikiaren Aldeko Komisia = Comisión Pro Reconstrucción de San Juan" taldea sortu zuten. Bi urte baino gutxiagoko epean, santutegia berregitea lortu zuten, 1980. urteko ekainaren 24an inauguratuz.

Bere misioa bete ondoren, komisioko hiru kideak eta "Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea = Comisión de Mantenimiento del Santuario de San Juan de Gaztelugatxe" taldea sortu zen. Orduan, eleiza eta bere kultureko mantenimendu lanak egiteaz gain, inguruko berritze eta hobetzekoak ere egin dituzte. Komisioko bultzatzailetako bat D. Ramón Mendizabal abadea izan zen, 1993.eko abenduaren 30an hil zena. Urtero eta egun horretan, Gaztelugatxeko San Juaneko lagunak eta kolaboratzaile hildako guztien aldeko meza bat ospatzen da.



1990




2006


## Destrucción del santuario en 1978

*La última peripecia que ha sufrido la iglesia de Gaztelugatx ha sido su incendio intencionado el día 10 de octubre de 1978. Los autores del sacrilegio arrojaron la venerada cabeza del santo a las peñas, donde fue hallada unos días más tarde. Inmediatamente un amplio grupo de personas, mayoritariamente de Bermeo, constituyeron la "Comisión Pro-Reconstrucción de San Juan" que, en menos de dos años, reconstruyeron el santuario, inaugurándose el 24 de junio de 1980.*

*Una vez cumplida su misión esa Comisión se disolvió, poniéndose en marcha la "Comisión de Mantenimiento del Santuario de San Juan de Gaztelugatxe = Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea" que se ha dedicado, estos años, a mantener la iglesia y su culto así como a realizar obras de mejora y adecentamiento del entorno. Uno de los impulsores de esta Comisión fue el sacerdote D. Ramón Mendizabal, fallecido el 30 de diciembre de 1993, fecha en la que se celebra una misa conmemorativa por todos los amigos y colaboradores de San Juan de Gaztelugatxe que ya han fallecido.*



1980.06.24



**ELIZKIZUNAK / CULTO Y HORARIO DE MISAS**

**Ekainak 24 de junio (San Juan)**

6'30, 7'30, 8'30, 9'30, 10'30, 11'30, 12'30, 1'30 eta arratsaldeko 6etan.

**Uztailak 31 de julio (San Ignacio)**

11 eta 12etan.

**Abuztuak 29 de agosto (Eneperi)**

11, 12 eta ordu 1etan.

**Abenduak 30 de diciembre**

Arratsaldeko 5etan.

© Idazlea / Autor: **Anton Erkoreka**

© Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea  
Bermeo, 2008

I.S.B.N.: 978-84-920885-2-2  
Legezko gordailua: NA-1866-2008  
Maketazioa: Kiñuka  
Inprimatzailea: Gráficas Lizarra

